

ZIRRIBORROA



Euskadiko 2021-2027 EGEF Programa

ZIRRIBORRO-TXOSTENA

2022/04/11



2021/1060 Erregelamenduaren 5. Eranskinean EGEFek babestutako programetarako (enpleguan eta hazkundean inbertitzeko helburua) ezarritako txantiloian oinarritua

EGEFek babestutako programetarako (enpleguan eta hazkundean inbertitzeko helburua) txantiloia	
– 21. artikulua, 3. apartatua	
4	4
1.	Programaren estrategia: garapeneraren eta erantzun politikoen arloko erronka nagusiak 5
1.1.	2030erako Euskadiren garapenerako erronka nagusiak identifikatzea5
1.1.1.	Erronka estrategiko globalak.....5
1.1.2.	Erronka sektorialak5
1.1.3.	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erronkak7
1.2.	Programaziorako Europar Batasunaren funtsezko erreferentziak7
1.2.1.	Kohesio Politika7
1.2.2.	Euskadiko erronken eta Kohesio Politikaren arteko koherentzia eta lerrokatzea7
1.3.	Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren estrategia. Helburu politikoak eta espezifikokoak eta aurre egin beharreko erronkak hautatzea.8
1.3.1.	Helburu politikoak eta helburu espezifikokoak hautatzea8
1.3.2.	EGEF Programaren erronkak8
2.	Lehentasanak 14
2.1.	Laguntza teknikoaz bestelako lehentasanak14
2.1.1.	Lehentasanaren izenburua [300]: L1.A Trantsizio digitala eta adimenduna14
2.1.1.1.	1.1 helburu espezifikoa: ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatzea eta hobetzea. 14
2.1.1.2.	1.2 helburu espezifikoa: digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat. 17
2.1.2.	Lehentasanaren izenburua [300]: L2.A Trantsizio berdea21
2.1.2.1.	2.1 helburu espezifikoa: energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea. 21
2.1.2.2.	2.4 helburu espezifikoa: klima-aldaketaarako egokitzapena, hondamendi-arrikuaren prebentzioa eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikusmoldeak kontuan hartuta..... 24
2.1.2.3.	2.5 helburu espezifikoa: ur-eskuragarritasuna eta kudeaketa hidriko jasangarria sustatzea. 27
2.1.2.4.	2.7 helburu espezifikoa: naturaren, biodibertsitatearen eta azpiegitura ekologikoen (aurrerantzean, «azpiegitura berdeak») babesa eta kontserbazioa sustatzea, baita hiri-zonetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea. 31
2.1.3.	Lehentasanaren izenburua [300]: L2.B Hiri-mugikortasuna35
2.1.3.1.	2.8 helburu espezifikoa: hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea, zero karbono-emisio garbiko ekonomia bateranzko trantsizioaren parte gisa 35
2.2.	Laguntza teknikoaren lehentasanak39
3.	Finantzaketa-plana 40
3.1.	Transferentziak eta ekarpenak40
3.2.	BTF: programan duen esleipena eta transferentziak41
3.3.	Bitarteko berrikusketaren ondoriozko eskualde-kategorien arteko transferentziak42
3.4.	Itzulketak.....43
3.5.	Urteko finantza-kredituak.....44
3.6.	Funtsen araberako guztizko finantza-kredituak eta baterako finantzaketa nazionala45
4.	Baldintza mesedegarriak 46
5.	Programako agintaritzak 60
6.	Elkartzea..... 62
7.	Komunikazioa eta ikusgaitasuna 65

8.	Unitateko kostuak, honenbesteko zenbatekoak, tasa finkoak eta kostuei lotu gabeko finantzaketa erabiltzea	66
1. gehigarria:	Unitateko kostuetan, honenbesteko kopuruetan eta tasa finkoetan oinarritutako Batasunaren ekarpena	67
2. gehigarria:	Kostuei lotu gabeko finantzaketan oinarritutako Batasunaren ekarpena	68
3. gehigarria:	Aurreikusitako garrantzi estrategikoko eragiketen zerrenda eta egutegia	69

EGEFek babestutako programetarako (enpleguan eta hazkunderan inbertitzeko helburua) txantiloia – 21. artikulua, 3. apartatua

CCI	2021ES16RFPR020
Izenburua ES hizkuntzan	Programa País Vasco FEDER 2021-2027
Izenburua hizkuntza nazionalean/nazionaletan	[255]
Bertsioa	
Lehen urtea	2021
Azken urtea	2027
Onargarria (noiztik)	2021/01/01
Onargarria (noiz arte)	2029/12/31
Batzordearen erabakiaren zenbakia	
Batzordearen erabakiaren data	
Estatu kidearen aldaketa-erabakiaren zenbakia	
Estatu kidearen aldaketa-erabakia indarrean jartzearen data	
Funtsezkoa ez den transferentzia (Xedapen Komunen Erregelamenduaren 24. artikulua, 5. apartatua)	Ez
Programak estaltzen dituen NUTS eskualdeak	ES21
Kasuan kasuko funtsa:	☐ EGEF (Eskualde Garapeneko Europako Funtsa) ☐ Kohesio Funtsa ☐ EGIF+ (Europako Gizarte Funtsa Plus) ☐ BTF (Bidezko Trantsiziorako Funtsa) ☐ EIAAF (Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsa)

1. Programaren estrategia: garapenaren eta erantzun politikoen arloko erronka nagusiak

Erreferentzia: 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren (Xedapen Komunen Erregelamendua) 22. artikulua, 3. apartatua, a) letra, i) eta viii) bitarteko eta x) tartekiak, eta 22. artikulua, 3. apartatua, b) letra

Testu-eremua [30 000]

1.1. 2030erako Euskadiren garapenerako erronka nagusiak identifikatzea

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiren lehiakortasun-posizionamendua (indarguneak/ahuleziak) ezagutzen duenez, identifikatuta ditu eskualdeak aurre egin beharreko erronka nagusiak, eta definituta ditu datozen urteetan erronka horiei aurre egin ahal izateko estrategiak. Alderdi horiek guztiak, besteak beste, horretarako egin den dokumentu batean laburbiltzen dira: **2021-2027 Kohesio Funtsak Kudeatzeko Euskal Esparru Estrategikoan**, Euskadiko 2021-2027 EGEF Programan jarraitu beharreko estrategia sostengatzea eta justifikatzea ahalbidetzen duen dokumentuan. Atal honetan labur-labur deskribatzen dira Euskadin hainbat gai interesgarritan diseinatu diren epe ertain eta luzeko estrategia nagusiak, Kohesio Politikaren Helburuak erreferentziazat hartuta. Azpimarratu behar da estrategia horiek egiteko (eta horien jarraipena egiteko) garapenerako lankidetzat handia egin dela eskualdean, bai abiapuntuko egoeraren diagnostikoa egiteko, bai esku hartzeko erronkak/beharrak zehazteko. Horietatik guztietatik atera daitezke Euskadik esparru horietan datozen urteetan aurre egin beharreko **erronka nagusiak**. Izan ere, horiek zehazten dituzte, Kohesio Politikak markatutako kontzentrazio-helburu eta -irizpideen arabera (1.2 apartatua), EGEF Programaren Estrategian bere gain hartu beharreko erronkak (1.3 apartatua).

1.1.1. Erronka estrategiko globalak

Pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialek areagotu egiten dituzte desberdintasunak testuinguru ekonomiko eta sozialean. Testuinguru horrek zenbait megajoera ditu bereizgarri, Euskadin Trantsizio Hirukoitzean laburbiltzen direnak:

- Lehenik, **trantsizio energetikoa eta klimatikoa**, zeharkako lehentasun nagusia. Desafio horri, Europako *Green Deal* akordioarekin bat, garapen ekonomiko jasangarriari bultzada emateko aukeraren ikuspegitik heldu zaio. Erronka da Euskadi erreferente industrial eta teknologiko bihurtzea energia berriztagarrien sorkuntzan: haize-energia, biomasa, eguzki-energia fotovoltaikoa, geotermikoa eta itsas energia.
- Planteatutako bigarren erronka **trantsizio teknologikoa eta digitala** da, hori ere aukera-nitxoa dela ulertuta. Planteatutako erronka honako alderdi hauetan aurrera egitean datza, besteak beste: adimen artifiziala, Big Data, Gauzen Internet, 5G teknologiak, sistema ziberfisikoak eta zibersegurtasuna. Etorkizuneko industria berria bultzatuko duen baina hezkuntza eta osasuna bezalako sektoreak ere eraldaketa digitalarekin lotuta dituen Euskadi Industrialaren alde egiten da. Digitalizazioaren izaera integral hori pandemia osteko suspertze-motorra da.
- Hirugarren erronka **osasun- eta gizarte-trantsizioa** da (era berean, trantsizio demografikoak markatua): ongizate inklusiboaren ikuspegitik, aukera-berdintasunari zerbitzu publikoak, hezkuntza eta osasungintza modu berdinzale eta barneratzailean eskuratzearen bidez heldu behar den planteatzen da, mugikortasun sozialari bidea emateko eta errenta primarioaren banaketan desberdintasunak epe luzean murrizteko. Gainera, lanean jarraituko da desberdintasun sozialak gauzatzen dituzten arrakalak ezabatzeko: soldata-arrakala, gizarte-arrakala, genero-arrakala, belaunaldi-arrakala, arrakala digitala eta lurralde-arrakala. Era berean, kalitatezko enpleguaren aldeko apustua egiten da, lan-egonkortasunari eta lan-baldintzei dagokienez, bizi-proiektu duinak garatu ahal izateko beharrezko premisa gisa, familia-bizitza eta lan-bizitza kontziliatzeko, etengabeko lanbide-kualifikazioa lortzeko, eta, azken batean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten bidezko soldatak lortzeko.

1.1.2. Erronka sektorialak

• I+G+B arloko erronkak

Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (ZTBP RIS3 Euskadi 2030) Euskadik ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoaren adierazpidea da. Azken hiru hamarkadetan apustu horri eutsi zaio, eta orain, 2030era begira, ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B) bultzatzeko plan berri hori aurkezten da, euskal ekonomiak lehiakortasuna hobetu dezan eta hazkunde jasangarriaren bidean aurrera egin dezan. ZTBP Euskadi 2030 planaren ikuspegia da Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea, bizi-maila handiarekin eta kalitatezko

enpleguarekin, zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatuta, Euskadi digital, berde eta inklusiborako trantsizioa bizkortuko duten palankak dira-eta:

✓ **Zutabe estrategikoak (ZTBP 2030):**

- Bikaintasun zientifikoa, oinarri zientifikoa hobetzeko eta ezagutza sortzeko.
- Lidergo teknologiko industrial, Berrikuntza irekia, berrikuntza bultzatzeko, batez ere enpresa txiki eta ertainetan.
- Talentua, aurreko hiru elementuak garatzeko gune nagusi gisa.

✓ **Lehentasun estrategikoak:**

- Industria adimenduna, Energia garbiagoak. Osasun pertsonalizatua.

✓ **Aukera-lurraldeak:**

- Elikadura osasungarria. Ekoberrikuntza. Hiri jasangarriak. Euskadi sortzailea.

✓ **Zeharkako trakzio-ekimenak:**

- Zahartze osasuntsua. Mugikortasun elektrikoa. Ekonomia zirkularra.

• **Digitalizazioaren arloko erronkak**

2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren (EEDE2025) bitartez Eraldaketa Digitaleko eredu berria definitzen da, hau da, Euskal Administrazio Publikoaren eta eragile ekonomikoen eta sozialen arteko harremana ulertzeko eta egikartzeko beste modu bat dakarren eredu, betiere erronka globalei batera aurre egin ahal izan dakien. EEDE2025 estrategiarekin, Euskadik digitalizazioaren arloan dituen erronkak markatzen dituzten 4 sektore (ekimen bereziak; ekosistema integratua; kompetentzia digitalak; bizkortzea, esperimentazioa eta erabilera) eta 18 ekintza-ildo definitu dira.

• **Lehiakortasunaren eta nazioartekotzearen arloko erronkak**

Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa (2021-2024) (IGNPE 2024) euskal ekonomia suspertzeko eta eraldatzeko tresna nagusia da, betiere pertsonak izanik ardatz. Garapen-eredu jasangarri eta inklusiboaren alde egiten du eta epe labur, ertain eta luzean inpaktua duten neurriak aintzat hartzen ditu. Planak, egoera koiunturala kontuan izateaz gainera, industria garatzeko eta enpresak nazioartekotzeko konpromiso estrukturala ere hartzen du. Horren harira, lehiakortasunera bideratutako Euskadiko plan eta estrategien multzoarekin bat datorren zeharkako izaera ematen zaio. Euskadik lehiakortasunaren eta nazioartekotzearen arloan dituen erronkak markatzen dituzten zenbait jarduketa-ardatz eta -palanka planteatzen ditu Planak.

• **Klima-aldaketaaren arloko erronkak**

2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia (KLIMA 2050 Basque Country), Euskadik honako helburu hauek definitu ditu: a) Euskadiko BEG emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030erako eta gutxienez % 80 murriztea 2050erako, 2005. urtearekin alderatuta; b) 2050. urtean lortzea energia berriztagarrien % 40ko kontsumoa azken kontsumoarekiko; eta c) Euskadik klima-aldaketaaren aurrean erresilientzia izan dezan bermatzea. Helburu horiek lortze aldera, 9 helmuga definitu dituen estrategia bat planteatu da; helmuga horiek zehazten dituzte Euskadik klima-aldaketaaren arloan aurre egingo dien erronkak.

Larrialdi Klimatikoari buruzko adierazpena eta Basque Green Deal ekimena

Larrialdi Klimatikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren adierazpen instituzionalak (2019ko uztaila) berresten du uste osoa duela Euskadi erronka horren aitzindari izan daitekeela eta erronka hori eraldaketa palanka bihurtzeko ekonomia lehiakorrago eta klimatikoki neutroagoa erdiesteko. Adierazpen horrekin, asmoa da klima-aldaketaaren gaia herrialde-helburu nagusi gisa kokatzea, eta erronka hori merezi duen benetako dimentsioa eta arreta ematea. Euskadi erronka horren aitzindari izan daiteke, eta erronka hori eraldaketa palanka bihurtzeko ekonomia lehiakorrago eta klimatikoki neutroagoa erdiesteko. Ildo horretan, Gobernu Programak konpromiso hori jasotzen du, eta erabakitasunez egiten du apustu Klimaren aldeko Akordio Sozial zabala lortzearen alde: Basque Green Deal.

• **Energiaren arloko erronkak**

Euskadiko Energia Estrategia (2030) euskal energia-politikaren 2016-2030 aldirako helburu estrategikoak ezartzen dira. Helburu horiek lortu ahal izateko, 8 jarduera-arlo ezartzen dira (25 ekimen eta 50 jarduera-lerro biltzen dituzte), Euskadik energiaren arloan dituen erronkak zehazten dituztenak.

• **Hidrologiaren arloko erronkak**

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027) lurraldeak eredu produktibo eta sozial ekologiko eta jasangarri baterantz bideratzeko ikuspegi estrategiko baten barruan kokatzen da, eta ezin hobeto lerrotatuta dago Europako Itun Berdearen esparruan garatzen ari diren Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako estrategiekin. Estrategia horiek zehazten dituzte, hain zuzen, Euskadin hidrografiaren arloan aurre egin behar zaien erronka nagusiak.

• **Ekonomia zirkularraren arloko erronkak**

Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia (2030), ekonomia zirkularraren arloko erronkak zehazten dituzten 2030erako 3 helburu estrategiko ezartzen dira: a) Produktibitate materiala % 30 areagotzea; b) Material zirkularraren erabilera-tasa % 30era igotzea; c) Barne-produktu gordin unitate bakoitzeko sortutako hondakinen tasa % 30 murriztea.

• **Hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko erronkak**

Datozen 10 urteetarako aurreikusten den arau-, ekonomia- eta ingurumen-esparrua ikusirik, honako hauek dira **“Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planarekin”** lortu nahi diren 3 erronkak: Europak

hondakinen arloan duen araudira egokitzea; Euskadiko hondakin-adierazleak hobetzea eta isurketaren inguruko problematika konpontzea; eta, bigarren mailako materialen merkatu egonkor eta segurua sortzea.

- **Biodibertsitatearen arloko erronkak**

2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiak jomugak, jarduketa-ildoak eta ekintzak zehazten ditu, batez ere diagnostikoaren bidez eta parte hartzeko ezarritako prozesuaren faseen bitartez identifikatuak. Jomuga horiek honako hauek dira: ekosistemak babestea eta leheneratzea; Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa (puntu horretan Euskadiko 2021-2027 Lehentasuneko Ekintza Esparrua nabarmendu behar da, Sarerako lehentasuneko ekintzak identifikatzen ditu-eta); naturaren ezaguera eta kultura sustatzea; eta, lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea.

1.1.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erronkak

Duela gutxi onartu da 1/2022 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (4/2005 Legea) bigarren aldaketa egitekoa. Lege horren xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdina izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko, egiturazko desberdinkeria eta sexuan oinarritutako diskriminazio-modu oro ezabatuzko, emakumeen aurkako indarkeria matxista barne dela. Erronka horiek lortzeko bidean aurrera egiteko, Eusko Jaurlaritzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana ere badauka. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko. Nabarmendu beharra dago, halaber, Legea aplikatzeko, plan sektorialetan genero-ikuspegia sartu behar dela, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak sartu ere.

1.2. Programaziorako Europar Batasunaren funtsezko erreferentziak

1.2.1. Kohesio Politika

Europako Batzordeak bost Helburu Politiko (HP) zehaztu ditu Kohesio Politikarako:

- HP1: Europa lehiakorragoa eta adimendunagoa.
- HP2: Europa berdeagoa, karbono gutxikoa.
- HP3: Europa konektatuagoa.
- HP4: Europa sozialagoa eta inklusiboagoa.
- HP5: Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa.

EGEF Erregelamenduaren 3. artikuluan xehatzen da 5 HP horiek zer Helburu Espezifikotan (HE) zehazten diren. Halaber, EGEF funtsetarako Erregelamenduaren 4. artikuluan xehatzen dira arestian aipatutako 5 HP horiei loturiko kontzentrazio tematikoaren irizpideak. Azkenik, kontuan hartu beharreko funtsezko beste erreferentzia bat Europako Batzordeak Espainiarako emandako 2021-2027 Kohesio Politikaren finantzaketari buruzko orientabideak dira. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Batzordeko zerbitzuen lankomentuaren D eranskina, Espainiarako 2019ko Europako Seihilekoari buruzkoa. Bertan, Batzordeak Espainian HPen arabera inbertitzeko beharrak zehazten ditu, eta horien intentsitatea hiru kategoriatan sailkatzen du, beheranzko hurrenkeran: a) lehentasun handiko beharrak; b) lehentasuneko beharrak; eta, c) beharrak. Nabarmendu beharra dago lehentasun handiko beharrak identifikatzen direla HP1, HP2 eta HP4an, baina ez HP3 eta HP5ean.

1.2.2. Euskadiko erronken eta Kohesio Politikaren arteko koherentzia eta lerrokatzea

Azken hamarkadetan, Euskadi Europako gobernantzan uztartzen ari da. Izan ere, EAEko eskualde-garapenerako estrategiak Europako estrategia horretan du erreferente nagusietako bat, eta, horrela, horien arteko koherentzia eta lerrokatzea bermatzen da, 2021-2027 Kohesio Politikaren esparruan ere islatzen den koherentzia eta lerrokatzea. Ildo horretan, Euskadiko eskualde-garapenerako epe ertain eta luzean identifikatutako erronken eta 2021-2027 programazio-aldi berrian Kohesio Politikarako ezarritako helburu politiko eta espezifikoaren arteko koherentziaren eta lerrokatzearen analisi matritziala egin da. Analisi horretan, halaber, Europako Batzordeak Espainiarako egindako 2021-2027 Kohesio Politikaren finantzaketari buruzko inbertsio-orientabideak kontuan hartu dira.

Analisi matritzial horrek berretsi du koherentzia eta lerrokatze estua dagoela. Elementu hori garrantzi handikoa da programazio-aldi berrian plangintza egokia erraztu eta bermatzeari begira, horrek aukera emango baitu Euskadiren erronkei erantzuteko eta, era berean, Batasunaren Eskualde Politika berriaren lehentasun estrategikoez arduratzeko, finantza-xurgapenerako ahalmen egokia bermatuko duen aldi berean.

1.3. Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren estrategia. Helburu politikoak eta espezifikoak eta aurre egin beharreko erronkak hautatzea.

1.3.1. Helburu politikoak eta helburu espezifikoak hautatzea

2021-2027 Kohesio Funtzak Kudeatzeko Euskal Esparru Estrategikoan xehatutako plangintzaren/programazioaren esparru logikoari jarraikiz eta honako hauek kontuan harturik:

- Euskadik Europako ingurunean duen lehia-posizionamendua.
- Euskadiren garapenerako identifikatutako erronka estrategiko nagusiak.
- Europako esparruaren funtsezko erreferentzia nagusiak (D eranskina).
- Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua eta Elkartzeko Akordioa (EA).

EGEF funts guztiak HP1 eta HP2an kontzentratzea planteatzen da. Euskadi eskualde garatuenen kolektiboan sartuta dagoenez, eskatzen zaio jada bere baliabideen % 85 gutxienez HP1 eta HP2ri esleitzeko, eta % 30 gutxienez HP2ri; beraz, funtsen % 100 bi Helburu Politiko horietara bideratzea planteatzen da, gogotik galdu gabe % 30 gutxienez HP2ra bideratu behar dela. Hori guztia EGF+ funtsak HP4an kontzentratzen diren testuinguruan.

HEak hautatzeari dagokionez, honako alderdi hauek ere kontuan hartu dira:

- Klima-aldaketa arintzen ($\geq 30\%$) eta biodibertsitatea iraunarazten (≥ 4) laguntzeko irizpideak.
- EGEF funtsen esku-hartzerako interes-esparruetan egindako aurrekontu-analisia.
- Aurreko programazio-aldietan izandako esperientzia, bai kontzentrazio tematikoari, bai jarduketak garatzeaz arduratu diren organo kudeatzaileei dagokienez. Ildo horretan, aurreko programazio-aldietan EGEF Programaren baliabideak batez ere hazkunde adimendun eta jasangarrian kontzentratuta zeuden, hots, ordurako neurri handi batean lerrokatzen ziren trantsizio teknologiko eta digitalaren eta trantsizio energetiko eta klimatikoaren erronkei aurre egiteko 2021-2027 programazio-aldiko orientabideekin.
- EGEF Programan garatu beharreko jarduketak eta REACT-EU funtsei eta Next Generation-EU funtsei buruzko jarduketak arteko koordinazioa.
- Egindako garapenerako lankidetzaren prozesuaren emaitzak, bai “uretan gora”, Europako Batzordearekin eta Kudeaketa Agintaritzarekin, bai “uretan behera”, eskumen-esparruaren arabera erakunde kudeatzaile izan daitezkeenekin eta eskualdeko eragile sozioekonomiko nagusiekin gauzatutako prozesuarenak.

Horiek horrela, HP1en kasuan, 5 Helburu Espezifikoetako 2 hautatzen dira, Elkartzeko Akordioan ezarritako **1.A lehentasunean** (Trantsizio digitala eta adimenduna) kokatuak:

- ✓ **HE1.1:** ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatzea eta hobetzea.
- ✓ **HE1.2:** digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.

Eta HP2ren kasuan, 8 Helburu Espezifikoetako 5 hautatzen dira; lehenengo 4rak Elkartzeko Akordion ezarritako **2.A lehentasunean** (Trantsizio berdea) kokatuak eta azkena **2.B lehentasunean** (Hiri-mugikortasuna):

- ✓ **HE2.1:** energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea.
- ✓ **HE2.4:** klima-aldaketarako egokitzapena, hondamendi-arrikuaren prebentzioa eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikusmoldeak kontuan hartuta.
- ✓ **HE2.5:** ur-eskuragarritasuna eta kudeaketa hidriko jasangarria sustatzea.
- ✓ **HE2.7:** naturaren, biodibertsitatearen eta azpiegitura ekologikoen (aurrerantzean, «azpiegitura berdeak») babesa eta kontserbazioa sustatzea, baita hiri-zonetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.
- ✓ **HE2.8:** hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea, zero karbono-emisio garbiko ekonomia bateranzko trantsizioaren parte gisa.

1.3.2. EGEF Programaren erronkak

EGEF Programaren erronka globala, **HP1en** kasuan, **Euskadiren eraldaketa teknologiko eta digitalari aurre egitea** da, eta, horretarako, EGEF funtsekin bultzatuko dira RIS3 Euskadi 2030 estrategia eta 2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia, honako erronka hauek ardatz hartuta, hautatutako Helburu Espezifikoaren arabera:

1. erronka. Enpresa-ehunean I+G+B inbertsioak bultzatzea (HE1.1 - I+G+B)

2021eko Berrikuntzaren Eskualdeko Adierazleen Europako Panela kontuan harturik, Euskadiko eskualdeko berrikuntza-indizea 119 da 2021ean. Europar Batasun osoaren batez besteko balioa 100 da (2014. urtea erreferentziazat hartuta, analisi homogeneoari begira). Horrela, 2021ean argi eta garbi kokatzen da Europako batezbestekoaren gainetik, berritzaile sendoen taldean, analizatutako 240 eskualdeen artean 93. tokian. Halere, Europako Batzordeak 2019ko Eskualdeko Lehiakortasun Indizean Euskadiren baliokide gisa kontuan hartzen dituen 12 eskualdeetako 9ren azpitik kokatzen den oraindik ere. Ildo horretan, ZTBP RIS3 Euskadi 2030 planaren ikuspegia da Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea, eta hiru erronka handiri aurre egiteko premia planteatzen du: I+G inbertsioak handitzea, batez ere enpresa-sektorean; enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza bultzatzea; eta, ikertzaileen artean emakumearen presentzia sustatzea. Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du enpresa-sektorean eta RIS3 estrategia garatzeko ekipamendu estrategikoetan I+G+B inbertsioak handitzeko erronka.

2. erronka. Ikertzaileen artean emakumeen presentzia sustatzea. (HE1.1 - I+G+B)

Emakundek egindako I+G+Ban dagoen generoaren arabera inaktuaren ebaluazioa kontuan harturik, Euskadiko I+G+Bko lan-merkatuan emakumeek eta gizonek duten presentzia desberdina da. 2019an I+G+Ban arlo eta sektore guztietan lana zuten langileen % 38 emakumeak ziren (2011n % 36). Ehuneko hori % 48ra igotzen da laguntzaileen kasuan, baina % 37ra jaisten da teknikarien eta ikertzaileen kasuan. Testuinguru horretan, eta ZTBP RIS3 Euskadi 2030 planean ildo horretan planteatutako beharrak ikusirik (ikertzaileen % 40 emakumeak izatea du helburu), EGEF Programak ere bere gain hartzen du ikertzaileen artean emakumeen presentzia sustatzeko erronka, arlo horretan genero-arrakala murrizten ahalegintzeko asmoz.

3. erronka. Administrazio publikoaren digitalizazioa bultzatzea (HE1.2 - Digitalizazioa)

Euskadi posizio aurreratuan dago Europar Batasunaren ingurunean, bere ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioari dagokionez. Hala adierazten du EB-28ko herrialdeen bilakaera konparatua neurtzeko erabiltzen den Europako Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizeak (DESI), Euskadi zazpigarren tokian kokatzen baitu 2020. urtean. Hala eta guztiz ere, 2019. urtean baino atzerago dago (urte horretan 5. tokian zegoen). Ildo horretan, Euskadik zerbitzu publiko teknologikoki aurreratuak abian jartzen lagundu du, eta asmoa da alderdi horietan laguntzen jarraitzea 2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia berriaren esparruan (sentsibilizatzea eta euskal produkzio-egituraren eraginik handiena duten abangoardiako teknologiak ezagutaraztea, teknologia digitalak ezartzea, digitalizazioa bizkortzea). Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du euskal administrazio publikoaren digitalizazioa bultzatzeko erronka, zerbitzu publiko teknologikoki aurreratuak eskaintzeko, oso efektu ereduagarria baitute hurrenez hurreneko eskumenen esparruaren barruan dauden kanpoko eragileentzat (herritarrak, enpresak, ikerketa-erakundeak), Erresilientzia eta Suspertze Mekanismoaren funtsek enpresa-sektorearen digitalizazioan lagunduko duten testuinguruan.

4. erronka. Emakumeek ekonomia digitalean parte har dezaten sustatzea. (HE1.2 - Digitalizazioa)

Europako Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea (DESI) kontuan harturik, emakumeek ekonomia eta gizarte digitalean duten parte-hartzearen aurrerakada txikia izan da. Women in Digital indizeak 2018az geroztik izandako bilakaera ikusirik, esan daiteke emakumeek Euskadiko ekonomia digitalean duten parte-hartzea desberdina dela indizearen dimentsioei dagokienetz: batez ere, konpetentzia aurreratuen maila egokian eta Internet zerbitzuen erdi-mailako erabilera oinarritzen da, eta, aldiz, Interneteko erabiltzaile gisa hobetu daitezkeen oinarritzko konpetentziak falta ditu. Testuinguru horretan, eta 2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategian ildo horretan planteatutako beharrak ikusirik (desberdintasun digitala murriztea), EGEF Programak ere bere gain hartzen du emakumeek ekonomia digitalean parte har dezaten sustatzeko erronka, arlo horretan genero-arrakala murrizten ahalegintzeko asmoz.

Eta **HP2rako** erronka globala **Euskadiren eraldaketa energetiko eta klimatikoari aurre egitea** da, eta, horretarako, EGEF funtsekin bultzatuko dira KLIMA 2050 Basque Country estrategia eta Basque Green Deal ekimena, honako erronka hauek ardatz hartuta, hautatutako Helburu Espezifikoaren arabera:

5. erronka. Eraikin publikoetan energia-efizientzia eta ekimen berritzaileetan inbertsioak bultzatzea (HE2.1 - Energia-efizientzia)

Azken energia-kontsumoa, 2025=100 oinarritzko urtea erreferentziazat hartuta, 2018an Euskadin (95,9) Europako esparruan (94,1) baino neurri txikiagoan jaitsi da, eta, bereziki, Estatuko esparruaren aldean (86,0), eskualdeak Estatuko eta Europako batezbestekoa baino energia-mendekotasun askoz ere handiagoa erakusten duen testuinguruan. Bestalde, berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak, 1990=100 oinarritzko urtea erreferentziazat hartuta, 2017an neurri handiagoan jaitsi dira Euskadin (96,3) Estatuko esparruan (121,8) baino, baina Europa osoan (78,3) baino neurri txikiagoan; ez dira erdietsi Europa 2020 estrategian Espainiarako zein EB-28 osorako ezarritako helburuak (96,3 balioa 2017an, eta 90 eta 80, hurrenez hurren). Ildo

horretan, KLIMA 2050 Basque Country estrategian 2030. urterako BEG emisioak gutxienez % 40 murrizteko helburua definitu da, karbono gutxiko energia-eredu baten alde eginez eta lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotuz; Euskadiko Energia Estrategian (2030), berriz, energia-eraginkortasun handiagoa duen euskal administrazio publikoa sustatzea planteatzen da. Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du eraikin publikoetan energia-eraginkortasuna bultzatzeko erronka (bizitegi-sektorearen energia-eraginkortasuna Erresilientzia eta Suspertze Mekanismoaren funtsekin bultzatu nahi da), baita esparru horretan proiektu pilotuak eta ekimen berritzaileak bultzatzekoa ere.

6. erronka. Uholdeen eta baso-suteen arriskuen prebentzioa bultzatzea (HE2.4 - Arriskuak).

KLIMA 2050 Basque Country estrategian adierazten denez, uholde-arriskuan klima-aldaketaren efektuei buruzko tokiko ikerketek iradokitzen dute uraldien emari maximoak, uholdeak hartutako azalerak, emariaren balioak eta korrontearen abiadura nabarmen hazi daitezkeela. Aldaketa horiek uholdeen arriskugarritasunaren eta kalteen hazkunde handi samarra sor dezakete, azken urteetan egiaztatzen ari den moduan (uholdeak historikoki Euskadin kalterik handienak eragin dituen arrisku naturala dira). Halaber, baso-masak Euskadiko azalera guztiaren % 55 inguru hartzen duen testuinguruan, adierazten da espero dela muturreko klimak areagotuko direla, eta faboratu egingo dituztela suteak, lur-mugimenduak, lurzoruen higadura eta lurzoruko karbono-erreserben galera. Estrategian arrisku horiei aurrea hartzeko erronka planteatzen da (halaxe jasotzen da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2022-2027) ere, uholdeen kasuan). Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du uholdeen eta baso-suteen arriskuen prebentzioa bultzatzeko erronka.

7. erronka. Uraren kudeaketan eta babesean efizientzia bultzatzea (HE2.5 - Ura)

KLIMA 2050 Basque Country estrategian adierazten denez, egokitzapenaren arloan lehentasuna du ur-horniduraren gaia lantzea; izan ere, klima-aldaketaren proiektzioen arabera, prezipitazioan eta tenperaturan izango diren aldaketek baliabide hidrikoen eskuragarritasunari eragingo liokete, eta batez besteko emaria murriztuko litzateke eta baliteke urtaroko aldakortasuna handiagoa izatea eta lehorte hidrikoen maiztasuna handiagoa izatea. Uraren kudeaketa jasangarria ekonomia berdearen elementu kritiko bat da, ekosistema erresilienteek ongizateari eta ekonomiari eusteko beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituztelako. Agertoki horretan, Estrategiak agertoki horiei aurrea hartzearen aldeko apustua egiten du, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2022-2027) arlo horretan planteatutako erronkekin bat (klima-aldaketaren aurreikuspenetara egokitzea). Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du uraren kudeaketan eta babesean efizientzia bultzatzeko erronka.

8. erronka. Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea bultzatzea (HE2.7 - Biodibertsitatea)

KLIMA 2050 Basque Country estrategian adierazten den moduan, klima-aldaketari lotutako ekosistemetan zerbitzuen eta biodibertsitatearen galerak eta beste dinamika batzuek, lurzoruen artifizializazioak edo lurraldearen zatikatzeak kasu, landu beharreko arazoak dira bai berez garrantzitsuak direlako, bai beste sektore batzuek ondo funtzionatzeko duten eragina dutelako. Euskadik orokorrean habitaten eta Batasunaren intereseko espezieen kontserbazio egoera kontrakoa du (baina 2013-2018 urteen arteko bilakaera pixka bat aldekoa da). Ildo horretan, KLIMA 2050 Basque Country estrategian euskal lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia bermatzeko helburua definitu da, natura-ingurunearen erresilientzia handitzearen aldeko apustua eginez, 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiarekin eta Euskadiko 2021-2027 Lehentasunezko Ekintza Esparruarekin bat. Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea bultzatzeko erronka.

9. erronka. Hiri-mugikortasun jasangarria bultzatzea (HE2.8 - Hiri-mugikortasuna)

Arestian adierazitako berotegi-efektuko gasak murrizteko premia larriak kontuan harturik, KLIMA 2050 Basque Country estrategian 2030. urterako BEG emisioak gutxienez % 40 murrizteko helburua definitu da, emisiorik gabeko garraio baterantz aurrera egitearen alde eginez (2019an, garraio-sektorea izan zen BEG emisioen gehikuntza izan zuen euskal sektore bakarra, 2005eko datuekin alderatuz (+% 12,5). Bere emisioen eta industria emisioen batura Euskadiko BEG emisio guztien % 64 izan zen). Euskadiko Energia Estrategian (2030), berriz, garraio-sektorean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea planteatzen da. Horrela, premia horiei konponbidea ematen laguntzeko, EGEF Programak bere gain hartzen du hiri-mugikortasun jasangarria bultzatzeko erronka.

1. taula		
Helburu politikoa	Helburu espezifikoa	Justifikazioa (laburpena) / [2 000 helburu espezifiko bakoitzeko]
HP1	HE1.1	- Euskadiren beharrei aurre egitea, enpresa-sektorean I+G+B inbertsioak handitzekoari (Programaren 1. erronka) eta ikertzaileen artean emakumeen presentzia sustatzekoari (Programaren 2. erronka). ZTBP RIS3 Euskadi 2030 planaren Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzeko ikuspegiarekin bat (gaur egun eskualde berritzaile sendoen taldean kokatzen da, baina Europako Batzordeak bere Eskualdeko Lehiakortasun Indizean Euskadiren baliokide gisa kontuan hartzen dituen 12 eskualdeetako 9ren azpitik), eta plan horretan ezarritako erronketako bi bere gain hartuta (I+G inbertsioak handitzea, batez ere enpresa-sektorean; eta, ikertzaileen artean emakumearen presentzia sustatzea). Erronka horiek bat datoz HP1erako ezarritako Euskadiko trantsizio teknologikoa eta digitala bultzatzeko erronka globalarekin. - Beraz, Europako Batzordeak lehentasunezko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki enpresa-ehunaren I+G+B inbertsioa sustatzea (produktuak, prozesuak eta zerbitzuak), RIS3 estrategiarekin bat, enpresen, ikerketa-zentroen eta unibertsitateen arteko teknologia-transferentziari eta merkatura bideratutako elkarlanari bidea emanez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) garapenean eta erabileran oinarrituta (berrikuntzaren ekosistemak). Hori guztia Europar Batasunaren beste programa batzuekiko sinergiak handitzen ahaleginduz, bereziki Europa Horizontea programarekin. - Jarraitutasuna ematen zaio aurreko programazio-aldietan gauzatutako enpresa-ehunaren I+G+Baren laguntzari, emaitza onak lortu baitira finantza-xurgatzeari zein inpaktuari dagokionez (lagundutako enpresa kopurua eta eragindako inbertsio pribatua), baina kasu honetan RIS3 Euskadi 2030 planarekin bat. - HP1i loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzeko behar den ekarpena.
HP1	HE1.2	- Euskadiren beharrei konponbidea ematen laguntzea, administrazio publikoaren digitalizazioa bultzatzekoari (Programaren 3. erronka) eta emakumeek ekonomia digitalean parte har dezaten sustatzekoari (Programaren 4. erronka). 2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia berriaren ildotik (sentsibilizatzea eta euskal produkzio-egituraren eraginik handiena duten abangoardiako teknologiak ezagutaraztea, teknologia digitalak ezartzea, digitalizazioa bizkortzea, desberdintasun digitala murriztea), programak bere gain hartzen ditu erronka horiek, HP1erako ezarritako Euskadiko trantsizio teknologikoa eta digitala bultzatzeko erronka globalarekin bat datozenak. - Beraz, Europako Batzordeak lehentasunezko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki administrazio elektronikoa eta zerbitzu elektroniko elkarreragingarriak garatzea eta sustatzea. Jarduketa horiek, nolanahi ere, izaera berritzailekoak eta balio erantsi handikoak dira, eta oso efektu eredugarria dute hurrenez hurreneko eskumenen esparruaren barruan dauden kanpoko eragileentzat (herritarrak, enpresak, ikerketa-erakundeak eta abar). - Jarraitutasuna ematen zaio aurreko programazio-aldietan gauzatutako administrazio publikoa digitalizatzeko prozesuetarako laguntzari, emaitza onak lortu baitira finantza-xurgatzeari zein inpaktuari dagokionez (administrazioaren aplikazio/zerbitzu berrien erabiltzaile kopurua, lagundutako enpresa kopurua eta eragindako inbertsio pribatua), kasu honetan 2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiarekin bat. - HP1i loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzeko behar den ekarpena.

HP2	HE2.1	- Euskadiren beharrei aurre egitea, eraikin publikoetan energia-efizientzia eta ekimen berritzaileetan inbertsioak bultzatzekoei (Programaren 5. erronka). 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiarekin (KLIMA 2050 Basque Country) bat (2030. urterako BEG emisioak gutxienez % 40 murrizteko helburua definitu da, karbono gutxiko energia-eredu baten alde eginez eta lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotuz, besteak beste) eta Euskadiko Energia Estrategiari (2030) (energia-eraginkortasun handiagoa duen euskal administrazio publikoa sustatzea planteatzen du, besteak beste) eta Basque Green Deal (klimaren aldeko akordio soziala) ekimenari jarraikiz, EGEF Programak bere gain hartzen du erronka hori, HP2rako ezarritako Euskadiko trantsizio energetikoa eta klimatikoa bultzatzeko erronka globalarekin bat datorrena. - Beraz, Europako Batzordeak lehentasunezko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki eraikin publikoak energiaren ikuspuntutik modu efiziente berritzeko ekimena bizkortzea, eta eskala txikiko azpiegiturak eta tamaina txikiko saretarako sarbidea sustatzea, energia-efizientziaren arloko proiektu pilotu eta ekimen berritzaile eredu garri eta erreplikagarrien garapena abiapuntu hartuta. - Jarraitutasuna ematen zaio aurreko programazio-aldietan gauzatuak eraikin eta azpiegitura publikoen energia-efizientziarako laguntzari, emaitza onak lortu baitira finantza-xurgatzeari zein inpaktuari dagokionez (energia-kontsumoaren beherakada eta berotegi-efektuko gasen (BEG) murrizketa), kasu honetan KLIMA 2050 Basque Country estrategiarekin, Euskadiko Energia Estrategiarekin (2030) eta Basque Green Deal ekimenarekin bat. - HP2ri loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzen eta klima-aldaketa arintzen laguntzeko irizpidea betetzen laguntzen dute jarduketek.
HP2	HE2.4	- Euskadiren beharrei konponbidea ematen laguntzea, uholdeen eta baso-suteen arriskuen prebentzioa bultzatzekoei (Programaren 6. erronka). KLIMA 2050 Basque Country estrategiarekin (arrisku horiei aurrea hartzeko erronka planteatzen du), Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoarekin (2022-2027) (uholdeen kasuan) eta Basque Green Deal ekimenarekin bat, EGEF Programak bere gain hartzen du erronka hori, HP2rako ezarritako Euskadiko trantsizio energetikoa eta klimatikoa bultzatzeko erronka globalarekin bat datorrena. - Beraz, Europako Batzordeak lehentasunezko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki klima-aldaketa prebenitzeko eta horretara egokitzeko neurriak babestea, ekosistema berrezartzeko ikuspegi oinarrituta, eta prestakuntza eta erantzuteko gaitasuna indartzea. Eta URAk (Uraren Euskal Agentzia) egindako arriskugarritasun-mapak eta uholde-arriskuaren mapak (funtsezko tresna, 2007/60/EE Zuzentaraua ezartzearen emaitza) eta lurralde historiko bakoitzean ezarriko diren baso-suteen prebentzio-planak kontuan harturik; eta azken kasu horretan, betiere Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsekin (LGENF) baterako finantzaketa ez duten jarduketak hautatuta. - Jarraitutasuna ematen zaio aurreko programazio-aldietan gauzatuak uholdeen eta baso-suteen arriskuen prebentziorako laguntzari, emaitza onak lortu baitira finantza-xurgatzeari zein inpaktuari dagokionez (biztanle onuradunak), kasu honetan KLIMA 2050 Basque Country estrategiarekin, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoarekin (2022-2027), URAren arrisku-plangintzarekin eta baso-suteen prebentziorako lurralde-planekin bat. - HP2ri loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzen eta klima-aldaketa arintzen eta biodibertsitatea iraunarazten laguntzeko irizpideak betetzen laguntzen dute jarduketek.
HP2	HE2.5	- Euskadiren beharrei aurre egitea, uraren kudeaketan eta babesean efizientzia bultzatzekoei (Programaren 7. erronka). 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiarekin (KLIMA 2050 Basque Country) (baliabide hidrikoen eskuragarritasunari eragingo lioketen prezipitazio eta tenperaturaren aldaketen agertokiei aurrea hartzearen aldeko apustua egiten du) eta Basque Green Deal (klimaren aldeko akordio soziala) ekimenarekin bat, EGEF Programak bere gain hartzen du erronka hori, HP2rako ezarritako Euskadiko trantsizio energetikoa eta klimatikoa bultzatzeko erronka globalarekin bat datorrena. - Beraz, Europako Batzordeak lehentasunezko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki baliabide hidrikoak ziklo hidrologiko osoan zehar efizientziaz erabil daitezkeen sustatzea, ura aurrezte eta berrerabiltzea sustatuz eta ekosistemetan oinarritutako neurriak bultzatuz. - HP2ri loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzen laguntzen dute jarduketek.

HP2	HE2.7	- Euskadiren beharrei aurre egitea, biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea bultzatzeko (Programaren 8. erronka). 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiarekin (KLIMA 2050 Basque Country) (euskal lurraldearen klima-aldaketa-erresilientzia bermatzeko helburua definitu da, natura-ingurunearen erresilientzia handitzearen aldeko apustua eginez, besteak beste), 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiarekin (ekosistemak babestea eta leheneratzea, eta Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa), Euskadiko 2021-2027 Lehenasuneko Ekintza Esparruarekin (funtsean habitata eta espezieak kontserbatzea bideratutako lehenasuneko neurriak) eta Basque Green Deal (klimaren aldeko akordio soziala) ekimenarekin bat, EGEF Programak bere gain hartzen du erronka hori, HP2rako ezarritako Euskadiko trantsizio energetikoa eta klimatikoa bultzatzeko erronka globalarekin bat datorrena. - Beraz, Europako Batzordeak lehenasuneko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki biodibertsitatea babestea eta berrezartzea, eta, horretarako, azpiegitura ekologikoak sustatzea. - Jarraitutasuna ematen zaio aurreko programazio-aldietan gauzatutako biodibertsitatearen eta ekosistemen baberako eta leheneratzeko laguntzari, emaitza onak lortu baitira finantza-xurgatzeari zein inpaktuari dagokionez (ibilguak iragazkortzea, ibaiak leheneratzea eta lehenasuneko zonen ingurumena leheneratzea), kasu honetan 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiarekin, Euskadiko 2021-2027 Lehenasuneko Ekintza Esparruarekin eta Basque Green Deal ekimenarekin bat. - HP2ri loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzen eta klima-aldaketa arintzen eta
HP2	HE2.8	- Euskadiren beharrei konponbidea ematen laguntzea, hiri-mugikortasun jasangarria bultzatzeko (HE2.8 - Hiri-mugikortasuna) (Programaren 9. erronka). 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiarekin (KLIMA 2050 Basque Country) bat (2030. urterako BEG emisioak gutxienez % 40 murrizteko helburua definitu da, emisioak gabeko garraio baterantz aurrera egitearen alde eginez, besteak beste) eta Euskadiko Energia Estrategiari (2030) (halaber, garraio-sektorean petrolioarekiko mendeotasuna murriztea planteatzen du, besteak beste) eta Basque Green Deal (klimaren aldeko akordio soziala) ekimenari jarraituz, EGEF Programak bere gain hartzen du erronka hori, HP2rako ezarritako Euskadiko trantsizio energetikoa eta klimatikoa bultzatzeko erronka globalarekin bat datorrena. - Beraz, Europako Batzordeak lehenasuneko zatitatu identifikatu dituen esku hartzeko beharretako batzuk azpimarratzea planteatzen da, bereziki hiri-mugikortasun garbia eta erlazioen azpiegiturak sustatzea, eta, horretarako, hiri barruko garraio-sistema inklusiboagoak, jasangarriagoak eta efizienteagoak bultzatzea eta garraioaren kanpo-efektu negatiboak (kongestioa, emisioak, airearen kalitatea) murriztea, hiri-mugikortasuneko plan jasangarriak oinarri hartuta. - Jarraitutasuna ematen zaio aurreko programazio-aldietan gauzatutako hiri-mugikortasun jasangarriko laguntzari, emaitza onak lortu baitira finantza-xurgatzeari zein inpaktuari dagokionez (oinezkoen eta bizikleten bideak garatzea, autobus elektrikoa bultzatzea eta abar), kasu honetan KLIMA 2050 Basque Country estrategiarekin, Euskadiko Energia Estrategiarekin (2030) eta Basque Green Deal ekimenarekin bat. - HP2ri loturiko erregelamenduzko kontzentrazio tematikoaren irizpidea betetzen eta klima-aldaketa arintzen laguntzeko irizpidea betetzen laguntzen dute jarduketek.

2. Lehentasunak

Erreferentzia: *Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 2.*

apartatua eta 3. apartatua, c) letra

2.1. Laguntza teknikoaz bestelako lehentasunak

2.1.1. Lehentasunaren izenburua [300]: **L1.A Trantsizio digitala eta adimenduna**

☐	EGEFen eta Kohesio Funtsaren Erregelamenduaren 3. artikuluan, 1. apartatuan, b) letran, iii) tartekian ezarritako hiri-mugikortasunaren helburu espezifikora bideratutako lehentasuna da
☐	EGEFen eta Kohesio Funtsaren Erregelamenduaren 3. artikuluan, 1. apartatuan, a) letran, v) tartekian ezarritako konektagarritasun digitalaren helburu espezifikora bideratutako lehentasuna da

2.1.1.1 1.1 helburu espezifikoa: ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatzea eta hobetzea.

2.1.1.1.1 *Funtsen esku-hartzeak*

Erreferentzia: *Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia eta iii) eta vii) bitarteko tartekiak*

Antzeko ekintza motak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia

Testu-eremua [8 000]

Ondo ezaguna da Euskadi azken urteotan ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak eta teknologia aurreratuen ezarpena garatu eta hobetzearen alde egiten ari den apustua. Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialde baten garapen ekonomikoaren funtsezko adierazleak dira, eta haren produktibitatearen eta lehiakortasunaren baldintzatzaile, baita hazkunde jasangarria lortzeko faktore erabakigarria ere. Berrikuntzaren erronkari erantzuteko, espezializazio adimendunaren oinarrien gainean ahalegin publiko eta pribatua egin behar da, Euskadi Europako berrikuntza-polo gisa indartzeko lehentasunezko helburuarekin.

Programaren 1. erronka, enpresa-sektorean I+G+B inbertsioak handitzekoa, kontuan harturik, enpresa-sektorean I+G+B jarduerak sustatu eta bultzatzea eta enpresa berritzaileak sortzen eta finkatzen laguntzera zuzendutako ekintzak garatu nahi dira, produkzio-egitura berritzaileagoa lortze aldera, balio erantsi handiagoko produktuak eta zerbitzuak garatu eta merkatuari eskainiko dizkiona, haien merkatuetan modu iraunkorrean lehiakorak izango direnak, eta modu sistematikoan berritzen duten enpresen kopuru handiagoarekin. Eta hori guztia Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin bat, zientzian, teknologian eta berrikuntzan oinarritutako balio erantsi handiko sektoreetara bideratutako enpresa-egitura baterantz aurrera egiteko.

Ilido horretan, planteatzen da **I+G+B proiektuak sustatzea, bai enpresa txiki eta ertainetan, bai enpresa handietan**, eta euskal enpresa-elkarteetan, honako jarduera hauek, besteak beste, behar diren baliabideez hornitzeko:

- **Industria-ikerketako** jarduerak. Industria-ikerketako proiektuak ezagutza eta gaitasun berriak lortzera bideratuta daude, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak garatzeko baliagarriak izan daitezkeenak edo daudenak nabarmen hobetzeko aukera eman dezaketenak, heldutasun teknologikoaren maila handituz.
- **Garapen esperimentaleko** jarduerak. Garapen esperimentaleko proiektuak lehendik dauden ezagutzak eta teknikak (zientifikoak, teknologikoak, enpresakoak edo bestelakoak) eskuratu, konbinatu, konfiguratu eta erabiltzera bideratutakoak dira, planak, egiturak edo produktu, prozesu edo zerbitzu berrien edo hobetuen diseinuak egiteari begira, heldutasun teknologiko handia lortzeko.

- Proiektuak **izaera lehiakorrekokoak eta/edo izaera estrategikokoak** izan daitezke. Izaera lehiakorrekoko ikerketa- eta garapen-proiektuek I+G+B jardueren multzo koherente bat izango dute, produktu originalak eta daudenak baino maila handiagokoak garatzera bideratuta, merkatuaren eta gizartearen eskariak hobeto asetzeko, edo merkaturatu daitekeen ezagutza erabiltzera edo sortzera argi eta garbi bideratuta, enpresa berriak sortzeko. Eta sektore estrategikoetako industria-ikerketako eta garapen esperimientaleko proiektuak izango dira Euskadiko ekonomiaren gainean trakzio-efektua izango dutenak, enpresa txiki eta ertainen esku-hartzea eta Europa Horizonte programarako sarbidea ahalbidetuz.
- Proiektuetan garrantzi handia ematen zaio **enpresa txiki eta ertainen** parte-hartzeari, eta kasu askotan enpresen arteko **lankidetzak** eta, era berean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileekiko lankidetzak inplikatzeko dira.

Lehen batean, ez da aurreikusten Estrategia Atlantikoarekin edo Mendebaldeko Mediterraneoko Estrategiarekin erlazionatutako ekintzarik garatzea.

Planteatutako ekintza motak ebaluatu eta DNSH printzipioarekin bateragarritzat jo dira, ez baita espero izaeraren ondorioz ingurumen-inpaktu negatibo adierazgarria izango dutenik.

Talde hartzaile nagusiak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Jarduketan talde hartzaile nagusiak honako hauek izango dira: enpresak (enpresa handiak edo enpresa txiki eta ertainak), enpresa-taldeak eta -elkarteak (nortasun juridikoarekin zein gabe), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresa berriak abiarazteko proiektuetan.

Berdintasuna, inklusioa eta diskriminaziorik eza babestera bideratutako ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iv) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan jasotako printzipio horiek programa hau egitean aintzat hartu dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz, tratu-berdintasunaz, inklusioaz eta diskriminaziorik ezaz arduratzen diren erakundeek parte hartu dute. Erakunde horiek ordezkaritza izango dute jarraipen-batzordeetan. Programa egikaritzen den bitartean nahitaezkoa izango da, besteak beste, berdintasunaren, inklusioaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak errespetatutako dituzten eragiketak hautatzeko irizpideak definitzea. Hona hemen ekintza zehatzen deskribapena:

1. Dirulaguntza-lerroetan, aurkezten diren proiektuek inpaktu sozialean lagun dezaten baloratuko da, kontuan harturik, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna edo egun dauden arrakalak gainditzea.
2. Oinarrien aginduaren eta laguntzen deialdien diseinuan berdintasun-klausula espezifikoak sartzea. Balorazio-fasean puntuak emango zaizkie genero-ikuspegia sartzeari eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari. Egikaritze-fasean enpresek sexuaren arabera bereizitako datuak jasoko dituzte, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari eta abarri buruz.
3. Enpresa onuradunek enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien 6/2019 Errege Lege Dekretuaren eta emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruzko 902/2020 Errege Dekretuaren aginduak bete beharko dituzte.
4. Jarraipen- eta ebaluazio-sisteman (txostenak) adierazleak eta datuak genero-ikuspegitik bildu eta analizatzeko ahaleginak egingo dira.
5. Eragiketaren organo kudeatzaileak barne-talde bat sortu du I+G+B proiektuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeari buruzko gaitasunak instalatzeko eta genero-ikuspegiaren aplikazioan aurrera egiteko. Taldeak proiektuen eta kudeaketa-taldearen ebaluatzaileei zuzendutako prestakuntza planifikatzen lan egingo du, gai horri buruzko modulu batekin, EMAKUNDEren eta Saileko Berdintasun Unitatearen laguntzarekin.

Lurralde espezifikoko hartzaileen adierazpena, lurralde-tresnen erabilera aurreikusia barne – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, v) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

Helburu espezifikoko honetan planteatutako jarduketak lurralde osoan aplikatzekoak dira.

Eskualdeen arteko eta nazioz haraindiko ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, vi) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

Izaera lehiakorrekiko ikerketa- eta garapen-proiektuak —bakarka edo bi erakunde onuradunen edo gehiagoren arteko lankidetzan egin ahal izango dira—, baldin eta Euskadin kokatutako enpresa batek edo gehiagok Europako beste erakunde batzuekin lankidetzan parte hartzen badute, nazioz haraindiko lankidetzako proiektutzat hartuko dira.

Finantza-tresnen erabilera aurreikusia – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, vii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Helburu espezifikoko honetako jarduketa guztiak dirulaguntza-modalitatearen bidez finantzatuko dira. Oro har, "gainezkatzeko-efektu" deritzen onoriozko kanpo-efektu positibo batetik datorren I+G inbertsioarekin lotutako merkatu-akats bat egoteak justifikatuko luke laguntzeko modu hori. Ebidentzia enpirikoak frogatu du I+G+B inbertsio-maila handiek, hain zuzen, kanpo-efektu positiboak sortzen dituztela. Inbertsioa egiten duen erakundeak ezin ditu bereganatu inbertsio horren ondorio diren irabazi guztiak. Horiek horrela, etekinak ez dira osorik itzultzen I+G+B inbertsioa egiten duen erakundera. Horren ondorioz, litekeena da I+G+B inbertsio pribatua inbertsio sozialki optimoa baino txikiagoa izatea. Laguntza publikoak partzialki konpentsatzen du kanpo-efektu hori, inbertsio pribatuak gora egin dezan eta inbertsio sozialki optimoari hurbil dakion.

2.1.1.1.2 Adierazleak

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, ii) tartekia, eta EGEFen Erregelamenduaren 8. artikulua

2. taula: gauzatze-adierazleak								
Lehentasuna	Helburu espezifikoa	Funtsa	Eskualde-kategoria	Ida [5]	Adierazlea [255]	Neurketa-unitatea	Mugarria (2024)	Jomuga (2029)
1A	HE11	EGEF	Garatuenak	RCO01	Lagundutako enpresak (horietatik: mikroenpresak, txikiak, ertainak, handiak)	Kopurua		
1A	HE11	EGEF	Garatuenak	RCO02	Dirulaguntzen bitartez lagundutako enpresak	Kopurua		

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, ii) tartekia

3. taula: emaitza-adierazleak											
Lehentasuna	Helburu espezifikoa	Funtsa	Eskualde-kategoria	Ida [5]	Adierazlea [255]	Neurketa-unitatea	Erreferentzia-balioa	Erreferentzia-urtea	Jomuga (2029)	Datu-iturria [200]	Oharrak [200]
1A	HE11	EGEF	Garatuenak	RCR02	Laguntza publikoarekin batera doazen inbertsio pribatuak (horietatik: dirulaguntzak, finantza-tresnak)	Euroak	0	2021		Lagundutako proiektuak	

2.1.1.1.3 Programaren (EB) baliabideen banakatzeko adierazgarria, esku-hartze motaren arabera

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, viii) tartekia

4. taula: 1. dimentsioa – esku hartzeko eremua					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE11	010	47.200.380
1A	EGEF	Garatuenak	OE11	011	15.733.460

5. taula: 2. dimentsioa – finantzaketa-modua					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE11	01	62.933.840

6. taula: 3. dimentsioa – lurraldean esku hartzeko mekanismoa eta lurralde-ikuspegia					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE11	33	62.933.840

8. taula: 7. dimentsioa – genero-berdintasuna					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE11	02	25.173.536

2.1.1.2 **1.2 helburu espezifikoa: digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.**

2.1.1.2.1 Funtsen esku-hartzeak

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia eta iii) eta vii) bitarteko tartekiak

Antzeko ekintza motak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia

Testu-eremua [8 000]

2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategiaren (EEDE2025) bitartez Eraldaketa Digitaleko eredu berria definitzen da, hau da, Euskal Administrazio Publikoaren eta eragile ekonomikoaren eta sozialen arteko harremana ulertzeko eta egikaritzeko beste modu bat dakarren eredu, betiere eronka globalei batera aurre egin ahal izan dakien. Ildo horretan, prozesu eta zerbitzu propioen digitalizazioa eta ekipamendu informatikoen eskuratzea eta mantentzea ez ezik, beren eskumenen esparruan dauden kanpoko eragileen (herritarrak, enpresak, ikerketa-erakundeak eta abar) eraldaketa digitala bultzatzea ere planteatzen da, baita gai jakin batzuetan erabakitasunez aurrera egitea ere: adimen artifiziala, komunikazio segurua, Big Data, hodeiko datu-azpiegitura eta abar.

Programaren 3. erronka, administrazio publikoaren digitalizazioa bultzatzekoa, kontuan harturik, administrazio elektronikoa eta zerbitzu elektronikoen elkarrengarritasunak garatzea eta sustatzea planteatzen da (Europar Batasunaren zerbitzu digitalen azpiegiturarekiko elkarrengarritasunaren eta gobernantza elektronikoen printzipioak betetzeko). Jarduketak horiek, nolatan ere, izaera berritzailekoak eta balio erantsi handikoak dira, eta oso efektu ereduagarria dute hurrenez hurreneko eskumenen esparruaren barruan dauden kanpoko eragileentzat (herritarrak, enpresak, ikerketa-erakundeak eta abar).

Ilde horretan, administrazio publikoari 5.0 Gizartearen kontzepturantz (gizarte irekiagoak, gardenagoak eta herritarrentzat irisgarriagoak) aurrera egiteko, datuen segurtasunari eta bizkortasunari buruzko merkatuko azken aurrerapenak erabiltzeko, eta hodeiko zerbitzuetan estrategikoki eboluzionatzeko aukera emango dioten ekintzak planteatzen dira. Ekintza horiek, era berean, zerbitzu-eskaintza berria ahalbidetuko dute, askoz ere zabalagoa eta beharretara egokitua. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- **e-Gobernuko aplikazioen** garapena dakarten jarduketak, administrazioaren zenbait lan-esparrutan eta horren eta herritar, enpresa eta abarren arteko harremanetan digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea erraztuko dutenak. Lehentasuna emango zaio herritarrentzat balio erantsiko zerbitzu berriak eskaintzen dituzten edo administrazio publikoentzat soluzio berritzaileak ahalbidetzen dituzten jarduketak garatzeari, baldin eta egungo egoera nabarmen hobetzen badute eta haien digitalizazio-planetan kokatzen badira.
- **IKT azpiegitura aurreratuen/berritzaileen** garapena dakarten jarduketak, e-gobernuaren eta elkarrengarritasunaren garapenari euskarria ematea ahalbidetuko dutenak, administrazioa azken belaunaldiko IKT azpiegituz hornitzeko: datu-zentroak (data center), Big Data, adimen artifiziala eta zibersegurtasuna, besteak beste. Soluzio zeharkakoak eta interkonektatuak bultzatzea da asmoa, eta, horretarako, administrazio eta erakunde publikoen arteko bide komuna eta elkarlanekoa ezariko da, esparru teknologikoan bateratzea eta integratzea sustatuko da —horrek abantaila ugari dakar, hala nola kostuak nabarmen aurrezteak—, eta kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen sakonduko da.

Lehen batean, ez da aurreikusten Estrategia Atlantikoarekin edo Mendebaldeko Mediterraneoko Estrategiarekin erlazionatutako ekintzarik garatzea.

Planteatutako ekintza motak ebaluatuta DNSH printzipioarekin bateragarritzat jo dira, ez baita espero izaeraren ondorioz ingurumen-inpaktu negatibo adierazgarria izango dutenik.

Talde hartzaile nagusiak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Ekintzen talde hartzaile nagusiak euskal administrazio publikoak izango dira, baita haien hurrenez hurreneko eskumenen esparruaren barruan dauden kanpoko eragile guztiak ere: herritarrak, enpresak, ikerketa-erakundeak eta abar.

Berdintasuna, inklusioa eta diskriminaziorik eza babestera bideratutako ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iv) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan jasotako printzipio horiek programa hau egitean aintzat hartu dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz, tratu-berdintasunaz, inklusioaz eta diskriminaziorik ezaz arduratzen diren erakundeek parte hartu dute. Erakunde horiek ordezkaritza izango dute jarraipen-batzordeetan. Programa egikaritzen den bitartean nahitaezkoa izango da, besteak beste, berdintasunaren, inklusioaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak errespetatuko dituzten eragiketak hautatzeko irizpideak definitzea. Hona hemen ekintza zehatzen deskribapena:

1. Kontratuetan berdintasun-klausulak erabiltzea, enpresa adjudikaziodunak berdintasunaren sustapenarekin konprometitutako enpresak izan daitezkeen sustatzeko, enpresa horien barnealderako neurriak ezartzearen bidez (kontziliazioa, jazarpenaren prebentzioa eta abar), kontratu bakoitza egikaritzeko aldiak dirauen artean.

2. Dagokion berdintasun-organoaren aholkularitza izango da, baita Emakunderen laguntza ere, kontratazioan erabiltzeko berdintasun-klausula egokiak eta legearen arabera zehazte aldera.
3. Eragiketetan exekutututako aplikazio eta plataforma informatikoak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzeko prestakuntza jasotzen duten administrazio langileen adierazleak bilduko dira, sexuaren arabera bereizita, ondoren analizatzeko. IKTen informazio-sistema publikoetarako iragaritasun-alderdiak neurtzen dituzten beste adierazle batzuk biltzea baloratuko da, baita kasuan kasuko administrazioaren erabiltzaile-kategorien erabilerak eta eskariak eta azken erabiltzaileak —herritarrak— neurtzea ere, genero-arrakala digital posibleak ezagutu ahal izateko.
4. E-administrazioko aplikazio eta plataformen azken erabiltzailearen mailako interfazeek genero-ikuspegia aintzat hartuko duten diseinua eta euskarriak ziurtatuko dituzte (hizkera, irudiak, testuak, mezuak).

Lurralde espezifiko hartzaileen adierazpena, lurralde-tresnen erabilera aurreikusia barne – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, v) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

Helburu espezifiko honetan planteatutako jarduketak lurralde osoan aplikatzekoak dira.

Eskualdeen arteko eta nazioz haraindiko ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, vi) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

Helburu espezifiko honetan planteatutako jarduketetan ez da aurreikusten eskualdeen arteko edo nazioz haraindiko proiektuei laguntzerik. Beste eskualde eta herrialde batzuekiko lankidetzak lurralde-lankidetzako programen bitartez edo Europako Batzordearen beste programa batzuen bidez garatuko dira.

Finantza-tresnen erabilera aurreikusia – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, vii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Helburu espezifiko honetako jarduketa guztiak dirulaguntza-modalitatearen bidez finantzatuko diren administrazioaren inbertsio publikoak dira. Diru-sarrerarik sortzen ez duten eta erakunde publikoak onuradun dituzten jarduketak dira.

2.1.1.2.2 Adierazleak

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, ii) tartekia, eta EGEFen Erregelamenduaren 8. artikulua

2. taula: gauzatze-adierazleak								
Lehentasuna	Helburu espezifikoa	Funtsa	Eskualde-kategoria	IDa [5]	Adierazlea [255]	Neurketa-unitatea	Mugarria (2024)	Jomuga (2029)
1A	HE12	EGEF	Garatuenak	RCO14	Zerbitzu eta aplikazio digitalak garatzeko lagundutako zentro publikoak	Zentro kopurua		

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, ii) tartekia

3. taula: emaitza-adierazleak											
Lehentasuna	Helburu espezifikoa	Funtsa	Eskualde-kategoria	IDA [5]	Adierazlea [255]	Neurketa-unitatea	Erreferentzia-balioa	Erreferentzia-urtea	Jomuga (2029)	Datu-iturria [200]	Oharrak [200]
1A	HE12	EGEF	Garatuenak	RCR11	Zerbitzu, produktu eta prozesu digital publiko berri eta hobetuen erabiltzaileak	Erabiltzaileak / urte	0	2021		Lagundutako proiektuak	

2.1.1.2.3 Programaren (EB) baliabideen banakatze adierazgarria, esku-hartze motaren arabera

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, viii) tartekia

4. taula: 1. dimentsioa – esku hartzeko eremua					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE12	016	16.871.352

5. taula: 2. dimentsioa – finantzaketa-modua					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE12	01	16.871.352

6. taula: 3. dimentsioa – lurraldean esku hartzeko mekanismoa eta lurralde-ikuspegia					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE12	033	16.871.352

8. taula: 7. dimentsioa – genero-berdintasuna					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
1A	EGEF	Garatuenak	HE12	02	6.748.541

2.1.2. Lehentasunaren izenburua [300]: **L2.A Trantsizio berdea**

☐	EGEFen eta Kohesio Funtsaren Erregelamenduaren 3. artikuluan, 1. apartatuan, b) letran, iii) tartekian ezarritako hiri-mugikortasunaren helburu espezifikora bideratutako lehentasuna da
☐	EGEFen eta Kohesio Funtsaren Erregelamenduaren 3. artikuluan, 1. apartatuan, a) letran, v) tartekian ezarritako konektagarritasun digitalaren helburu espezifikora bideratutako lehentasuna da

2.1.2.1 2.1 helburu espezifikoa: **energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea.**

2.1.2.1.1 Funtsen esku-hartzeak

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia eta iii) eta vii) bitarteko tartekiak

Antzeko ekintza motak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia

Testu-eremua [8 000]

Energiaren eta baliabideen erabilera efizientea funtsezkoa da ingurumen-jasangarritasunean eta karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioan aurrera egiteko egiten den apustu instituzionalean, 2050ean berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortzeko, Europar Batasunaren konpromisoekin bat etoriz.

Programaren 5. erronka kontuan harturik, **eraikin publikoetan energia-efizientzia hobetu** eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuko dituzten inbertsioak babestea planteatzen da, baita energia-efizientiaren arloko **proiektu pilotuetan eta/edo ekimen berritzaileetan** egindako inbertsio publikoak ere, efektu eredugarria eta erreplikagarria dute-eta. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- **Euskal Administrazioaren eraikin publikoen energia-efizientzia** hobetzeko birgaitzea, eta, hala badagokio, irisgarritasuna barne hartzen duten proiektu integraletan jasotakoa. Hori guztia trantsizio energetikoa eta klimatikoa bultzatzeko, klima-aldaketaren eta ekonomia berderanzko trantsizioaren helburuak betetzen laguntze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearekin, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiarekin, Euskadiko Energia Estrategiarekin (2030) eta garapen jasangarriko helburuei (GJH) lotutako helburu eta jomugekin bat (Basque Country 2030 agenda).
- Administrazioak **eredu-proiektu berritzaileak, frogagarriak eta erreplikagarriak** diseinatzea eta garatzea, energia-ereduaren aldaketa bultzatzeko, eta, horretarako, adibidez, energia-soberakinen aprobetxamendua sustatzea, hala nola industriako hondar-beroaren aprobetxamendua, hurbileko eraikinen energia-beharrak estaltzeko.

Lehen batean, ez da aurreikusten Estrategia Atlantikoarekin edo Mendebaldeko Mediterraneoko Estrategiarekin erlazionatutako ekintzarik garatzea.

Planteatutako ekintza motak ebaluatu eta DNSH printzipioarekin bateragarritzat jo dira, ez baita espero izaeraren ondorioz ingurumen-inpaktu negatibo adierazgarria izango dutenik.

Talde hartzaile nagusiak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Laguntzen talde hartzaileak euskal administrazio publikoak dira.

Berdintasuna, inklusioa eta diskriminaziorik eza babestera bideratutako ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iv) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan jasotako printzipio horiek programa hau egitean aintzat hartu dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz, tratu-berdintasunaz, inklusioaz eta diskriminaziorik ezaz arduratzen diren erakundeek parte hartu dute. Erakunde horiek ordezkaritza izango dute jarraipen-batzordeetan. Programa egikaritzen den bitartean nahitaezkoa izango da, besteak beste, berdintasunaren, inklusioaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak errespetatuko dituzten eragiketak hautatzeko irizpideak definitzea. Hona hemen ekintza zehatzen deskribapena:

1. Kontratazioetan: egikaritzeko berdintasun-klausulak erabiltzea, enpresak berdintasunaren arloko legezko betebeharrak betetzeaz gain, kontratua egikaritzen den bitartean bertan inplikaturik dauden langileei eragiten dieten berdintasun-neurri zehatzak nahitaez hartu beharra zehazten dutenak (bizitza pertsonala, lana eta familia kontziliatzeko politikak, sexu-jazarpenaren prebentzioa, laneko arriskuen prebentzioa genero-ikuspegia aintzat hartuta).
2. Berdintasun-organo eskudunaren aholkularitza izango da, baita Emakunderen laguntza ere, kontratazioan erabiltzeko berdintasun-klausula egokiak eta legearen arabera zehazte aldera.

Lurralde espezifiko hartzaileen adierazpena, lurralde-tresnen erabilera aurreikusia barne – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, v) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

Helburu espezifiko honetan planteatutako jarduketak lurralde osoan aplikatzekoak dira.

Eskualdeen arteko eta nazioz haraindiko ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, vi) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

Helburu espezifiko honetan planteatutako jarduketetan ez da aurreikusten eskualdeen arteko edo nazioz haraindiko proiektuei laguntzerik. Beste eskualde eta herrialde batzuekiko lankidetzak lurralde-lankidetzako programen bitartez edo Europako Batzordearen beste programa batzuen bidez garatuko dira.

Finantza-tresnen erabilera aurreikusia – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, vii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Helburu espezifiko honetako jarduketa guztiak dirulaguntza-modalitatearen bidez finantzatuko diren administrazioaren inbertsio publikoak dira. Diru-sarrerarik sortzen ez duten eta erakunde publikoak onuradun dituzten jarduketak dira.

2.1.2.1.2 Adierazleak

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, ii) tartekia, eta EGEFen Erregelamenduaren 8. artikulua

2. taula: gauzatze-adierazleak								
Lehentasuna	Helburu espezifikoa	Funtsa	Eskualde-kategoria	Ida [5]	Adierazlea [255]	Neurketa-unitatea	Mugarria (2024)	Jomuga (2029)
2A	HE21	EGEF	Garatuenak	RCO19	Energia-errendimendu hobetua duten eraikin publikoak	Metro koadroak		
2A	OE21	EGEF	Garatuenak	RCO20	Hiriko berokuntza- eta hozte-sare eraiki berriak edo hobetuak	km		

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, ii) tartekia

3. taula: emaitza-adierazleak											
Lehentasuna	Helburu espezifikoa	Funtsa	Eskualde-kategoria	Ida [5]	Adierazlea [255]	Neurketa-unitatea	Erreferentzia-balioa	Erreferentzia-urtea	Jomuga (2029)	Datu-iturria [200]	Oharrak [200]
2A	HE21	EGEF	Garatuenak	RCR26	Urteko azken energia-kontsumoa (horretatik: bizitegikoa, bizitegiz bestelako pribatua, bizitegiz bestelako publikoa)	MWh/urte	Esku hartu aurreko energia primarioaren urteko kontsumoa	2021		Lagundutako proiektuak Aurretiko eta ondorengo energia-efizientziaren ziurtagiria	
2A	HE21	EGEF	Garatuenak	RCR29	Zenbatetsitako berotegi-efektuko gasen emisioak	CO2 tona baliokideak /urte	Esku hartu aurretik zenbatetsitako BEG emisioen maila	2021		Lagundutako proiektuak	

2.1.2.1.3 Programaren (EB) baliabideen banakatze adierazgarria, esku-hartze motaren arabera

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, viii) tartekia

4. taula: 1. dimentsioa – esku hartzeko eremua					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
2A	EGEF	Garatuenak	HE21	044	5.506.200
2A	EGEF	Garatuenak	HE21	122	1.242.000

5. taula: 2. dimentsioa – finantzaketa-modua					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
2A	EGEF	Garatuenak	HE21	01	6.748.200

6. taula: 3. dimentsioa – lurraldean esku hartzeko mekanismoa eta lurralde-ikuspegia					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
2A	EGEF	Garatuenak	HE21	33	6.748.200

8. taula: 7. dimentsioa – genero-berdintasuna					
Lehentasuna	Funtsa	Eskualde-kategoria	Helburu espezifikoa	Kodea	Zenbatekoa (eurotan)
2A	EGEF	Garatuenak	HE21	02	2.699.280

2.1.2.2 2.4 helburu espezifikoa: klima-aldaketarako egokitzapena, hondamendi-arriskuaren prebentzioa eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikusmoldeak kontuan hartuta.

2.1.2.2.1 Funtsen esku-hartzeak

Erreferentzia: Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia eta iii) eta vii) bitarteko tartekiak

Antzeko ekintza motak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, i) tartekia

Testu-eremua [8 000]

Euskadi garapen jasangarriarekin eta nazioartean adostutako klima-helburuekin konprometituta dagoen erkidegoa da. Larrialdi Klimatikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren adierazpenak (2019) indartu egin du konpromiso hori, eta Euskadi erreferentziazko erkidego gisa kokatu du klima-aldaketaren kontrako borrokan. Apustu irmoa egiten da Euskadin "Basque Green Deal" Klimaren aldeko Akordio Sozial zabala lortzearen apustua egiten da gure lurraldeak, Parisko Akordioarekin eta Europako Itun Berdearekin (European Green Deal) bat etorritz, batez besteko tenperatura globalak 2 gradu zentigradoak gainditzea saihesten laguntzeko eta, 2050ean, berotegi-efektuko gasen emisioan herrialde neutroa izateko.

Programaren 6. erronka kontuan harturik, baliabideak uholdeen eta baso-suteen arriskuen prebentziora zentratzea planteatzen da, URAk (Uraren Euskal Agentzia) egindako arriskugarritasun-mapak eta uholde-arriskuaren mapak (funtsezko tresna, 2007/60/EE Zuzentaraua ezartzearen emaitza) eta Euskadiko lurralde historiko bakoitzean ezariko diren baso-suteen prebentzio-planak aintzat hartuta. Horiek horrela, helburu espezifiko horren pean finantza daitezkeen ekintzak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- **Antolamendu-jarduketak, ibaiak bideratzekoak eta uholdeen kontra defendatzekoak.** Jarduketa horien helburu nagusia izango da Euskadin uholde-arriskua murriztea eta, hala badagokio, desagerraraztea, uraldiak (emaria handitzea) arintzearen bitartez. Horretarako, honako jarduketa hauek garatu ahal izango dira: zubiak kentzea/ordeztea, ibaiak hobeto bideratzea, hobekuntza hidraulikoak egitea, eta Euskadiko ibaiak defendatzeko eta egokitzeko beste obra batzuk, betiere ura atxikitze jarduketa naturalak lehenetsita. Era berean, esparru horretan klima-aldaketara egokitzeko sistema berriak ezartzen laguntzea ere planteatzen da (prezipitazioak neurtzea eta abar), neurrien doitasuna hobetzeko, bereizmena handitzeko, atzipen-denborak hobetzeko eta larrialdi-sistemen eraginkortasuna areagotzeko.
- **Sute-arriskuen prebentziorako eta klima-aldaketak kaltetutako zonak leheneratzeko** jarduketak. Honako jarduketa hauek planteatzen dira: prebentziorako basogintza-tratamenduak (basogintza-tratamenduak eta belar-sastrakak garbitzea, baso-erregaia etentak mantentzeko eta sortzeko, hala nola suaren kontrako eremuak eta pisten zerrenda osagarriak); baso-suteen kontra babesteko azpiegitura egokitzea (basoetan barneratzea eta bidezidorrak, bideak, pistak eta abar beritzea, finkatzea, egokitzea eta modernizatzea); eta, suak lurraldean duen arriskuaren eta portaeraren analisiari aplikatutako lurralde-kudeaketako teknologia berriak aplikatzea.

Helburu tematiko honetan EGEFen esparruan gauzatzen diren ekintzak, baso-suteen prebentzioarekin zerikusia dutenak, LGENFrako hauta daitezkeen jarduketak ere izan daitezke. Testinguru horretan, LGENFren baterako finantzaketa duten Euskadiko Landa Garapenerako Planean sartutako jarduketekin koordinatzea bermatuko da, finantzaketa bikoitza saihesteko. Horretarako, koordinazio-mekanismoak sortuko dira eraginpeko erakundearen barruan, eta argi eta garbi ezariko dira esku hartzeko kategoriak eta funts batekin eta bestearekin finantzatu beharreko gastuak. Ildo horretan, EGEF Programaren esparruan erakundeak berak zuzeneko egikaritze bidez gauzatutako eta, oro har, lurraldearen gaineko arriskuak prebenitzera eta kudeatzera bideratutako jarduketak baino ez dira sartuko. Horrela, bi funtsen arteko osagarritasuna ere bermatzen da.

Lehen batean, ez da aurreikusten Estrategia Atlantikoarekin edo Mendebaldeko Mediterraneoko Estrategiarekin erlazionatutako ekintzarik garatzea.

Planteatutako ekintza motak ebaluatu eta DNSH printzipioarekin bateragarritzat jo dira, ez baita espero izaeraren ondorioz ingurumen- inpaktu negatibo adierazgarria izango dutenik.

Talde hartzaile nagusiak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iii) tartekia:

Testu-eremua [1 000]

Ekintzen talde hartzaile nagusiak euskal administrazio publikoak eta herritarrak oro har izango dira.

Berdintasuna, inklusioa eta diskriminaziorik eza babestera bideratutako ekintzak – Xedapen Komunen Erregelamenduaren 22. artikulua, 3. apartatua, d) letra, iv) tartekia:

Testu-eremua [2 000]

2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan jasotako printzipio horiek programa hau egitean aintzat hartu dira, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz, tratu-berdintasunaz, inklusioaz eta diskriminaziorik ezaz arduratzen diren erakundeek parte hartu dute. Erakunde horiek ordezkaritza izango dute jarraipen-batzordeetan. Programa egikaritzen den bitartean nahitaezkoa izango da, besteak beste, berdintasunaren, inklusioaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideak errespetatuko dituzten eragiketak hautatzeko irizpideak definitzea. Hona hemen ekintza zehatzen deskribapena:

